

LEHIAKETAK-CONCURSOS / SIDRA-SAGARDOA

“XIII. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak” oinarriak.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 13/02/2014 • 9:45 • Editar

Sin comentarios



Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak, “XIII. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak” iragartzeko Foru Agindua argitaratu du deialdia onartu eta bere oinarriak onartzeko.

Milaka urteko usadioz Gipuzkoako baserrien nekazari-tza-ekintzen artean sagarraren laborea eta sagardogintza aurkitzen ditugu. Denboran zehar Gipuzkoako Foru Aldundiak pomologiaren sustapenerako eta sagardoaren ikerketarako hainbat ekintza garatu ditu. Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko funtzioen artean sagardorako

sagarrondoaren sustapena, ezagutzen diren barietateen hobekuntza eta elkarte profesionalen elkarkidetzaren sagardoaren kalitatearen hobekuntzarako aurkitzen dira. Zentzu honetan, bai alderdi analitikotik baita organoleptikotik ere sagardoaren kalitatea baloratu, sustatu eta saritu helburuztat duen Lehiaketa baten ospakizuna, produktu honen hobekuntza laguntzen duen neurria da.

Hala, honakoak dira kontuan izateko datuak:

- Epea:** Eskeraur aurkezteko epea 2014ko apirilaren 16an, 14:00tan amaituko da. Eskariak, behar bezala beteta, helbide honetara bidali behar dira:
Gipuzkoako Foru Aldundia.
Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua.
Landare Alorreko Unitatea.
Gipuzkoa plaza z/g.
20004 Donostia.
Tel: 943.112.183.
Faxa: 943.426.920.
- Eguna:** 2014ko ekainaren 7an ospatuko da “XIII. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak” Donostiako Euskal Gastronomia Elkartean.
- Batzordea:** Lehiaketa Batzordea honela osatuko da: Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko bi ordezkari eta Euskal Gastronomia Elkarteko ordezkari bat; eta bere egitekoa izango da “XIII. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak” izeneko lehiaketa kudeatzea.
- Epaimahaia:** Sagardo lehiaketako epaimahaia hamabi lagunek osatuko dute, ondoren zehazten den moduan: Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko foru diputatua izango da epaimahaiburua. Lehiaketara aurkeztu den sagardogile bakoitzak epaimahairako bost hautagai proposatuko ditu. Boto gehien jasotzen dituzten lehenengo bostak epaimahaiko kide izango dira. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak beste bost kide proposatuko ditu epaimahairako. Proposatutako kide horiek dastatze lanetan adituak, sommelierak, sagardoaren munduan lan egiten duten enologoak, sagardoaren kofradiakideak, ostalariak, edo antzekoak izango dira. Lehiaketaren finalean ez dira epaimahaikide izango finalistak diren sagardotegietan enologiari buruzko aholkularitza zerbitzuak ematen dituzten pertsonak. Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuko funtzionario batek, Antolaketa Batzordeko kide denak, egingo ditu idazkari lanak, hitzarekin baina botorik gabe. Erabakiak gehiengo hartuko dira eta epaimahaiburua berdinketak erabakitzearen kalitateko botoa izango du. Epaimahaiaren osaketa Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko foru diputatuaren foru agindua bidez jakinaraziko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.
- Prozedura:** Sagardo naturala bakarrik onartuko da. Sagardo naturala egiten duten enpresek Gipuzkoan kokaturik egon behar dute eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Industrien Erroldan iskena emanda; horrez gain, Botilartzaile Erregistroa eta Osasun Erregistroa eduki behar dituzte.
- Laginak jasotzea:** Antolatzaileek, sagardotegi bakoitzean, kupeletik zuzenean hartuko dituzte laginak.
- Sariak:** Lehiaketan finalista geratzen diren lehenengo hirurei honako sari eta garaikurrak emango zaizkie:
- Lehenengo saria: 3.000 euro, txapela eta garaikurra.
- Bigarren saria: 1.500 euro eta garaikurra.

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

RSS Feed
Twitter
Facebook

Buscar / Bilatu

Categorías

Azokak-Ferías
Ekitaldiak-Eventos
Errezetak-Recetas
Esperientziak-Experiencias
Formazioa-Formación
Gastronomia-Gastronomía
Historia-Historia
Kultura-Cultura
Lehiaketak-Concursos
Museos-Museoak
Sagarra-Manzana
Sagastia-Manzanal
Sidra-Sagardoa
Sidrerias-Sagardotegiak
Turismoa-Turismo

Post Recientes



“XIII. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak” oinarriak.



Sagarrondoen inausketa ikastaroa.



Ostatu eta sagardotegiko eskaintza 2014ko txotx boladako ostiraletarako.



Gipuzkoan sagardotarako sagarrondoak landatu, zaindu, hobetu eta garatzeko diru laguntzak.

- Hirugarren saria: 1.000 euro eta garaikurra.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentua.
Foru Agindua deskargatu.

Tags: Cofradía Vasca de Gastronomía de San Sebastián, concurso, Diputacion Foral de Gipuzkoa, Donostiako Euskal Gastronomía Elkartea, Gipuzkoako Foru Aldundia, lehiaketa, sagardoa, Sidra

Anterior post

Curso de poda de manzanos.Sagarrondoan inausketa ikastaroa.

Tu comentario / Zure komentarioa

Registrado como Sagardoaren Lurraldea. Desconectar »

Enviar



PROBAKETAK. Kata gidatuak sagardotegietan 2014.

Comentarios recientes

J.M de Amassorrayn en **2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.**

Kalakan abrirá mañana la nueva temporada de txotx | NON SERVIAM en 2014KO TXOTX IREKIERA. KALAKAN taldeak irekiko du txotx bolada berria.

Sagardoaren Lurraldea en XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.

agandamin en XIV. Kirikoketa Besta Arizkunen, azaroaren 2an.

Aritz en Donostiako XXVIII. Sagardo Eguna, irailaren 7an.